

Bidegi



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Trantsizio garaian *Nafarroa Euskadi da* eztarria urratu arte oihukatu genuenok beti begiratu izan diogu begi-zeharka, baina atentzio bereziz, “Komunitatean” gertatzen denari –hala esaten dugu batzuetan; beste batzuetan “Baskongadetan”, are “EAE”n ere, izendatzeko manera horrek estaliko balu bezala gure proiektu nazionalaren porrot historikoa, edo itxaronaldi eternoa, nahiago baduzue–.

Bere garaian, gure eztarriek eskertuko zuketan inoiz zer ginen edo zer izan nahi genuen galdetu izan baligute, gure okerraren tamaina zenbakietan neurtu ahal izateko baino ez bazen ere. Gaur egun, aritmetika horiek ez gaituzte hainbeste arduratzen, kopuru edo ehuneko baten gorabeherak ez duelako gauza handirik aldatuko gure ohiko babesgabetasun metafisikoa. Izan ere, zer garaigu? Nafarrak, noski, baina Nafarroa itsasorako aterabiderik gabeko zulo bat da –esateko modu bat da–, eta ez zaigu aski; euskaldunak, ozta-ozta, euskaraduna izatea gero eta gutxiago delako euskalduna izateko bermea, eta bestela galdetu ETBkoei eta enparaei; Euskadikoak ez,

Bidegi kasuaren ibilbide judiziala ezaguna da, erreakzioak ere bai. Barkatu esatea, baina... A zer *espektakulu botxornosua, anai-arreba baskongadook!*

jakina. Euskal Herrikoak? Askorentzat nekez, haientzat Euskal Herria Euskadiren sinonimoa baita. Euskadi-nahiak, igual? Baina nork nahi du gabezia edo hutsune batek definitua izatea?

Nafar gaiztoak gara, gainera. Errazago egiten ditugu lagunak Mutrikun edo Apatamonasterion Fustiñanan baino. Izan ere, non dago Fustiñana? Fustiñana existitzen denik ere ez genuke sinetsiko, lau urtean behin hauteskundeak egingo ez balira. Halakorik egiten dugun bakanetan, Aragoi ibaia hegorantz zeharkatzea Mississipi bera zeharkatzea baino

gogorragoa egiten zaigu, eta aldiz, maite dugu maite Lizarrustitik beherako pagadia, hain gureak bezalakoa...

Gure deserrotze eta nortasunaren lautotze horrek, beraz, Euskadira begira jartzeko gaitu usu, eta han gertatzen dena kasik gurean gertatuko balitz bezala bizi ohi dugu, ez bakarrik nostalgiaz, baizik eta Osakidetzak osasun zentroak ixten badiitu –demagun–, norbera Osasunbideak emango duen hurrengo pausoaren gainean parioak egiten hasten ahal delako.

Hortaz, ez da batere harritzekoa Bidegi auzia interesez segitu izana. Kasuaren ibilbide judiziala ezaguna da, erreakzioak ere bai. Barkatu esatea, baina... A zer *espektakulu botxornosua, anai-arreba baskongadook!* Irogailuan puzker isil baten usaina aditzen dela esatea motz gelditzen da. Epailak agindu largespena jendea tontotzat hartzetik gora dago. Hori jendea kaka egitea da, burutik behera.

Enfin. Mendebaldetik sentimendua elkarrekikoa dela erantzungo didate, ausaz, baina itsasorik gabeko nafartasun kamuts, txistorrizatu eta afrus bat arrastaka eramateko kondena tokatu bazait ere, ez dut Euskadi horretakoa izan nahi. ●

www.bertsozale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

Urriaren 7tik abenduaren 2ra

Irurita · Viana · Uhartea · Leitza
Altsasu · Agoitz · Lesaka · Iruñea



Antolatzailea

Laguntzailea



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2023